

Indarberrituta eta sailkapenari buelta emateko prest zelairatuko dira gaur ohorezko taldekoak

Landaren jokatu du Hernanik urteko eta Ligako bigarren itzuliko aurreneko partidua. Cienciasen aurka ariko da gaur, 12:00etan hasita. Garaipen bat gehiago lortu duen taldea da aurkaria, eta aukera polita du Hernanik.

HERNANI ERRUGBIA

Urtea bukatu bezala hasi nahi du Hernaniko ohorezko mailako taldeak, berria ere: garaipenarekin. Eta horretarako aukera polita izango du gaur, 12:00etan Landaren.

Ciencias izango du aurkari; hain zuzen, garaipen bakar bat gehiago lortuta, sailkapenean Hernaniren gainetik dagoen taldea. Hernanik, aldiz, denboraldiko bigarren garaipena gaur lortu nahi du, bigarren itzuliari hasiera polita emateko. Horretarako, aurreneko itzuliko azken

partiduak, Barçaren kontra lortutako garaipenak emandako indarrarekin zelairatuko dira gaur.

Hurrengo partiduetan, berriaz, Cisneros eta Ordizia izango ditu aurrez aurre, urtarrilean.

Zelaia, egoera onean

Urte bukaeran hainbat arazo izan ziren Landaren euriak eraginda, eta kexak ere eragin zituen kanpoko talde batzuetan. Klubetik jakinarazi dute «taldeko kolaboratzaileen mantentimendu lanei esker zelaiaren egoera asko hobetu» dela. **K**



Gaurkoan zelaia garbiago egotea espero da.



'Mami Lebrun' gaur, azkeneko

HERNANI ANTZERKIA

2018an irabazi zuen Donostia Antzerkia Saria Xake Produktzioak ekoiztutako *Mami Lebrun* antzezlanak, eta ibilbide oparoaren ondoren, gaur esango dio obrak agur publikoari. Bertan aktore ari da Ainara Ortega Barrenetxea hernaniarra. Azken emanaldia, 19:00etan, Bilboko Pabilioi 6, Arte Eszenikoen elkargunean izango da.

Onddira, gazteak

HERNANI MENDIRIZ MENDI

Hernani Ezagutuz egitasmoaren barruan, Onddi biraren aurreneko zatia egin ahal izango da gaur, 09:00etan Plazatik aterata.

700 euroko sobrea, galduta

HERNANI GALDUTAKOAK

Ostegunean herritar batek 700 euro gordetzen zituen sobrea galdu zuen, Plaza Berriko Kutxa banketxetik Atsegindegirako bidean, edo G1 autobusean bertan. Aurkituz gero, Udaltzaingora eramateko eskatu du, eta azaldu du 100 euroko ordainsaria emango zaiola bueltatzen duenari.

Bingo aukeran gaur, Gaztelekuan

ASTIGARRAGA GAZTELEKUA

Arratsaldeko 17:00etatik 20:00etarako tartean, bingoan jolasean aritzeko aukera izango da gaur, Gaztelekuan.

Bi pelikula Biterin, gaur ere

HERNANI ZINEA

Gaztetxoei zuzenduta, *Jumanji* pelikula jarriko dute gaur berriro Biterin, 16:30etan. Helduentzat, berriaz, *Sorry we missed you*, 19:30etan. Azken hau bihar ere ikusi ahal izango da, ikusleen eguneko prezioan, 16:30etan.

Pultsera tailerraren ondoren, hainbat zita gehiago

Urteari egitarau potoloarekin eman diote hasiera Gaztelekuan, eta begiraleek «gazte guztiak animatu» nahi izan dituzte «espazioa ezagutu eta zerbitzua erabili dezaten». Gaur irekita egongo da 16:30etatik 20:30ak arte.

HERNANI GAZTELEKUA

Gaztelekuak asteartetik igandera irekitzen ditu atak 12 eta 17 urteko gazteei begira. Hainbat ekintza prestatzen dituzte begiraleek, eta gazteek ere aukera izaten dute hainbat ideia proposatzeko. Horietako bat da, hain zuzen, gaur egin ahal izango dena: pultsera tailerra.

Asteburuetan 16:30etatik 20:30etara irekitzen da Aristizabal kaleko 5 zenbakian dagoen lokala; 16:30etatik 18:30etara 12-14 urte bitartekoentzat, eta 18:30etatik 20:30etara, 14-17 urte

artekoentzat. Asteartetik ostegunera 17:00etatik 20:00etara irekitzen da, adin banaketarik egin gabe, eta osiraletan ere berdin, 16:30etatik 20:30etara.

Denei irekia

Urtarrileko agenda prestatzearekin batera, Gaztelekuko begiraleek «gazte guztiak animatu» nahi izan dituzte «espazioa ezagutu eta zerbitzua erabiltzera. Bertan antolatutako ekintzetan parte hartzera eta dauzkaten ideiak eman eta proposamenak egitera». Ideiak emateko hurrengo eguna 16a izango da. **K**

URTARRILEKO EGITARAUA

GAUR

Esku-lan tailerra: pultserak.

14

Merienda osasuntsua eta TO! maparen aurkezpena.

16

Ideien zaparrada.

17

Henna tailerra (gazteek proposatutako ekintza), Gaztelekuko erabiltzaile baten ama sahararraren eskutik.

22

Saskibaloia, Latsunben (gazteek proposatutako ekintza).

23

Arremanitzeko Maialen Gartziaeren bisita. Tratu Onen inguruan martxan jarriko den buzoia eramango

du, gazteek tratu onen balioen, sexualitatearen eta harremanen inguruan dauzkaten kezka edo zailtasunak argitzeko erabili dezaten.

25

Mastertxef txapelketa: talde txikitik banatuta, pintxo bat prestatu behar da. Baloratzeko orduan kontuan hartuko diren irizpideak: talde lana, originaltasuna, aurkezpena eta zaporea.

28

Hamma bead tailerra: plastikozko pieza txikiekin plantxa baten gainean irudiak osatzea.

30

Ekintza izarra: hilaren hasieran eta 16an egindako ideia zaparradan zehaztutako ekintza.

31

Virus jolasean txapelketa.



ANTZIOLA, 3
943 55 17 91
HERNANI

Hernaniko haurreskola

Izen-emate epea zabalik

URTARRILAREN 7tik 13ra

Sagastialdeberri 2
943 55 29 91

Funeraria VASCONGADA
Zure eskura

24h-ko zerbitzua
943 376 980

Orkolaga, 2-4
943 55 79 01
HERNANI

www.funerariavascongada.com

GAUR Hotz egingo du goizean, eta zenbait tokitan izotza botako du. Gainontzean, eguzkia izango da, orokorrean, jaun eta jabe, nahiz eta lainoren bat agertu daitekeen. **Min.4° / Max.12°**

BIHAR Goizean hotz egingo du berriro, eta eguzkia nagusituko den arren, bezperan baino laino gehixeago agertuko dira. Eguna bukatzerako hego-haizea harrotu egingo da. **Min.5° / Max.13°**

DOBERA EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK

Hernaniko Udala

Astigarra Udalak

Erretxako Auzo Udalak

GOZUETAKO UDALA

ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarra) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarra) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarra) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: Tena** Nagusia, 16 (Astigarra) **943 543718** **Gauz: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

ELKARTEA

Gipuzkoako Foru Aldundia

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

Umore Ona eta Oiarpe ariko dira elkarren kontra, finaleko partiduetan

Azken finalerdiak ostiralean jokatu ziren Umore Ona Pilota Txapelketan, eta finalak larunbatean, urtarrilaren 18an izanen dira.



Lau final jokatu dira larunbatean; maila bakoitzean bana.

GOIZUETA ESKU PILOTA

Ostiraleko finalerdien ondoren, argitu da nork jokatu dituen Umore Ona Pilota Elkartearen Txapelketako finalak. Partidu horiek larunbatean, hilaren 18an jokatu dira, arratsaldeko 17:00etan hasita.

Umore Ona eta Oiarpe, finalean

Azken finalerdietan bost partidu

jokatu ziren. Umeen mailan, Larin eta Garmendiak irabazi zuten 18 eta 5, Aranberitarren kontra; eta Legarretak eta Alsuak, 18-16, Narbarte eta Sagarduiren kontra; denak, Umore Onakoak.

Kimuen mailan, berriz, Oiarpeko Sanzberro eta Zelaiaran gailendu ziren 18 eta 11, Aurrerako Martinez eta Telletxearen kontra. Haurretan ere Oiarpe

izan zen nagusi: Olaitz eta leonetek 18 eta 3 irabazi zieten Vertiz eta Allende añorgarrei.

Azkenik, 22 urtez azpikoen mailan, Oiarpe izan zen nagusi baita ere: Ugalde-Etxeberriak 22 eta 7 irabazi zuten Getariako Aris-ti eta Ilunpeko Salegiren kontra.

Finaletan, beraz, umeetan izan ezik, Oiarpe eta Umore Ona izanen dira aurrez aurre. **K**

Lazaro Oyarbidek eta Ekaitz Cisnerosek sariak, Txantxangorri

San Silbestre tiraketa irabazi zuen Oyarbidek abenduaren 28an, eta XLI. ehiza xehea txakurrarekin txapelketa, Cisnerosek, abenduaren 14an.

TXANTXANGORRI EHIZA ETA TIROA

Hainbat txapelketarekin agurtu dute urtea Txantxangorri elkarrean. Batetik, abenduaren 14an XLI. ehiza xehea txakurrarekin txapelketa jokatu zen Txantxangorri elkarrean Zanzbran daukan El Castillo kotoan. Bestetik, abenduaren 28an San Silbestre tiraketa jokatu zen, Compak Sporting erara, Arka-leko zelaian.

Aurrenekoan Ekaitz Cisneros izan zen txapeldun 14 partehartzailearen artean, 610 punturekin. Bigarren Axier Arribabalaga izan zen (608) eta hirugarren, Juan Pedro Yeregi (404).

Tiraketa, bestalde, Lazaro Oyarbidek irabazi zuen 22 partehartzailearen artean; Manuel Elorza izan zen bigarren; eta Aitor Aristorena hirugarren. Bigarren mailan, Iker Fuentes izan zen onena, Yon Ander Zapiain eta Oskar Redondok jarraituta. **K**



Lazaro Oyarbidek aurreneko saria irabazi zuen, eta Manuel Elorzak bigarrena.



Ekaitz Cisnerosek 610 punturekin irabazi du txapelketa.



Hotzaren aurrean goxo aritu ziren kantuan, atzo.

Kantua kaleak alaitzeko, urte osoan

HERNANI KALEZ KALE KANTARI Urteko aurreneko hitzorduarekin bete zuen atzo, Kalez Kale Kantarik. Eguerdian Kaxkoan barrena ibili ziren, kantuan. Aurrerantzean ere hileko biga-

rren larunbatetan aterako dira, apirilean izan ezik; Aste Santua medio, apirilaren 18an aterako dira. Urriaren 17an, bestalde, 15garren urteurrena ospatuko dute.

Txirrindularien arropa, eskuragarri

HERNANI ZUMITZA TALDEA

Urtarrilaren 15etik otsailaren 5era bitartean, Zumitza txirrindularitza taldearen arropa erosteko aukera izango da. Asteazkenero, taldeko kide bat Kide kafetegian egongo da, 19:00etatik 20:00etara, zalantzak argitu eta diseinu berria erakusteko. Arropa probatzeko aukera ere emango da urtarrilaren 29an eta otsailaren 5ean, 11:00etatik 12:00etara eta 19:00etatik 20:00etara.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† FIDELA MURILLO GUIADO

(Manuel Carmonaren alarguna)

Atzo hil zen, 92 urte zituela

- Goian bego -

Seme-alabak: Mikel eta Ines Maria; bilobak: Igor eta Nerea; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte **BIHAR, ASTELEHENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.



Hernanin, 2020ko urtarrilaren 12an

OHARRA: Gorputza Hernaniko ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da bihar goizeko 10:30ak arte.

† ESKERTZA Luisa Guembelzu Sansinenea

(Jose Antonio Muruaren alarguna)

Orain egun gutxi hil zen

- Goian bego -

Haren sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zaretzen guztioi eta baita bere elizkizunetara etorri zineten guztioi ere.

ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK



Hernanin, 2020ko urtarrilaren 12an

IRAGARKI MERKEAK

Sozio sanitario euskalduna pertsonak zaintzeko prest, kobxearekin. Deitu: 678 992 110 **LOGIKALINE** enpresak **TELEOPERADORA LANPOSTU** bat bete behar du. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta katalana eskatzen dira. Lanaldi osoa.

Bidali c.v. rrrhh@logikaline.com edo deitu 943 31 86 06.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)